

2

BIDAIAKO LAGUNTZA, EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA EDO ORDEZKO IBILGAILUA BEHAR BADUZU

NOLA JOKATU EZBEHARRA GERTATUZ GERO?

Bidaiako Laguntzako zerbitzuak behar badituzu, deitu zuzenean **944 94 74 28** telefonora.

Atzeritik deitzen baduzu, **00 34 944 94 74 28 da telefonoa**. Behar duzun arreta eskainiko dizute.

Gure laguntza-zerbitzua bila joango zaizu, bai autoa bertan konpontzeko bai tailerrera eramateko; jakina, bidaideez ere arduratuko da.

Garabiaren zain zauden bitartean, jarraitu aholku hauek, zure segurtasunagatik:

- 1** Saiatu ibilgailua galtzadatik kentzen, piztu larrialdietako argiak, eta jarri esku-frenoa.
- 2** Jantzi txalekoa ibilgailutik atera aurretik.
- 3** Seinaleztatu ibilgailua behar bezala, 50 bat metrora arriskuaz ohartarazteko bi elementu jarritz, bata ibilgailuaren aurretik eta bestea atzetik.
- 4** Jar zaitetz leku seguru batean, ibilgailutik kanpo.

Eguneroko Bizitzarako Laguntzaren estaldura (Laguntza zabaltzea) kontratatuta baduzu, eta familiako kide batek istripu batean zauririk izan badu eta ospitalean badago edo etxean mugiezinik badago, informa zaitetz 902 38 08 38 telefonora deituta jaso ditzakezuen laguntza-zerbitzuez eta zainketez.

Zirkulazio-istripu bat izan baduzu eta **Ordezko Ibilgailuaren** estaldura kontratatuta baduzu, galdetu alokairu-ibilgailu batez baliatzeko aukerari buruz zurea konpontzen duten bitartean.



